

Udarako lau plan prestatu dituzte, Astigarraga, bere historia eta sagardoaren kultura ezagutzeko

ASTIGARRAGA

Kronika - Erredakzioa 2021-06-26 00:00



Ekimenean parte hartuko duten establezimendu eta eragileak, aurkezpenean.

'Astigarraga ezagutuz' ekimenak uztartuko ditu gosariak, pintxoak, sagardo katak, otordu maridatuak, bizikleta elektrikoetan bueltak...

Udarako ekimen berezi batekin egin dute bat Astigarragako Udalak, Sagardoetxea Museoak eta herriko sei establezimenduk (Betigoxo, Bukoi, Ekaitz, Ibailur, Ikatza eta Iretza). Izan ere, *Astigarraga ezagutuz* aurkeztu zuten atzo, lau plan proposatzen dituen, Astigarraga, bere historia eta sagardoaren kultura ezagutzeko.

«Esperientzia ezberdinen bidez, aukera izango dugu herriko txokoak, bertako gastronomia eta sagardoaren kultura ezagutzeko», nabarmendu zuten atzo, Erribera kulturguneko terrazan egin zuten aurkezpenean.

Mota ezberdinetako planak, familian edo lagunartean

Familian edota lagunartean egiteko planak proposatu dituzte, lau esperientzia horiekin. Pintxoak janez bizikleta elektrikoan deitu dute aurrenekoa, eta bost orduko iraupena izango du. Horretan, «Astigarragako zaporeak» dastatu eta herriko txokoak ezagutuko dituzte partehartzaileek: gosaria Ikatza tabernan (09:00-10:00), bizikleta elektrikoan bisita Astigarragatik (10:00-12:00), pintxoak eta sagardo kopa Bukoi (10:00-12:00) eta Ekaitz (10:00-15:00) tabernetan, eta Sagardoetxean bisita eta dastaketa gidatua (13:00-14:00). 29 eurokoa izango da prezioa.

Bigarren plana, Sagardoaren kultura eta gastronomia izenekoa, goizez edo arratsaldean egin daiteke, eta lau orduko iraupena izango du. Sagardoetxean bisita eta sagardo dastaketa egin ondoren, herrian egingo dute bisita, eta Ibailur sagardotekan otordu maridatua. Goizez, 11:00etan hasiko da plana; eta arratsaldean egiten dutenek, 17:00etan ekingo diote. 32 euro dira helduentzat, eta 17 euro haurrentzat. Plan horretan, gozatu ahal izango dute «sagardoaren kulturaz, eta edari honekin uztartutako gastronomia bereziaz».

Sagardo bidean barrena izeneko planarekin, berriz, Santiomendiko Sagardo Bidean zehar egingo dute ibilaldia goizean, sagardo dastaketa eguerdian Sagardoetxean, eta bazkaria gero Iretza sagardotegian. «Naturaz gozatzen dugun bitartean, tokiko historia ezagutzeko aukera ematen du, bost orduko esperientzia honek». 21 euro dira helduentzat, eta 14 euro haurren kasuan.

Eta azkenik, *Ezagutu Astigarraga familian* izeneko planarekin, Betigoxo tabernan hasiko dute eguna, txokolatea txurroekin gosalduta. Bizikleta elektrikoekin herria ezagutuko dute gero, eta Sagardoetxean bisita eta dastaketa gidatua ere egingo dute. Bost ordukoa izango da hori ere, eta herriko historian murgilduko dira partehartzaileak, bizikletaz «paseo atseginaz» gozatzen duten bitartean. 17,5 euro izango dira helduentzat, eta 15 euro haurrentzat.

Herrian barrena bisita egiteko, mapak emango dizkiete Sagardoetxean, herriko interesguneekin; eta Sagardo Bidean, paneletan jarri dituzte QR kodeak, informazio osagarriarekin.

Aurreneko hamabostaldian, %15eko deskontua

Esperientziak dagoeneko erreserbatu daitezke, Sagardoetxean edota [sagardoarenlurraldea.eus](#) webgunean. Eta uztailaren 1etik 15era, aurreneko hamabostaldian, %15eko deskontua izango da esperientzia guztietan. Horretarako, webgunearen bitartez erosiz gero, *Astigarraga ezagutuz* kupoia erabili behar da. Sagardoetxean bertan erosiz gero, zuzenean aplikatuko dute deskontua. Gainera, hamabostaldi horretan, sorpresa bereziak ere eskainiko dizkiete, parte hartu duten establezimenduek.


Lau planak biltzen dituen folletoa buzoneatu dute etxeetan, eta ostatu eta landetxeetan ere egongo da eskuragarri, «bisitariak zein herritarrak» animatu daitezen parte hartzera.

Kultura Astigarraga

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

Erantzun



Ikusienak



[Gabonetarako tokiko opari alternatiboak erosteko aukera paregabea, bailarako sorkuntzekin](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00
[Urumea](#)



[Uholdeak Urumea bailaran](#)

[Iruditan](#)
Kronika - Erredakzioa
abe 10 [Urumea](#)



[Urak hartuta esnatu ziren bailarako toki asko atzokoan, eta aurreikuspena ez da hobea gaurko](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00
[Urumea](#)



[Urumea ibaiaren maila jaitsi egin da](#)

Kronika - Erredakzioa
abe 11, 09:50
[Urumea](#)



[Kroketak, legatza, txuleta, eta postrerako... etxeko natilak](#)

[Gabonak](#)
Kronika - Erredakzioa
abe 11, 00:00
[Urumea](#)



[Eguberri doinuak argi-izpi](#)

Aloña Beraza Peña abe 11, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani
Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua





Gertuko informazioa, euskaraz

- [AIARALDEA](#)
- [AIKOR](#)
- [AIURRI](#)
- [ALEA](#)
- [AMEZTI](#)
- [ANBOTO](#)
- [ANTXETA](#)
- [ATARIA](#)
- [BALEIKE](#)
- [BARREN](#)
- [BEGITU](#)
- [DEUSTUALDEA PREST](#)
- [ERLO TELEBISTA](#)
- [ERRAN](#)
- [EUSKALERRIA IRRATIA](#)
- [GEURIA](#)
- [GOIENA](#)
- [GOIERRI TELEBISTA](#)
- [GUAIXE](#)
- [HIRUKA](#)
- [KARKARA](#)
- [KRONIKA](#)
- [MAILOPE](#)
- [MAXIXATZEN](#)
- [NOAUA](#)
- [OIZMENDI TELEBISTA](#)
- [PLAENTXIA](#)
- [TXINTXARRI](#)
- [URIOLA](#)
- [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

- [Gurean](#)
- [Plazanbazan](#)
- [Itap](#)
- [Tokikom publizitatea](#)